

**NEURI DEIEZ**

Ez,  
ez bakarrik goizaro urdiñez,  
goizero, euriz, uda astean,  
lenengo erne erraiñu beroz  
argia dizdiz biurtzean

Ez,  
ez bakarrik lorategian  
dardar, eguna jaiotean,  
urrin samar areitz-buruak  
kiribiltzen diran unean...

Ez,  
ez bakarrik arrats-bideetan,  
txorien ames kolorgean,  
ez bakarrik epai osteko  
zelaiaaren oiu luzean.

Bai,  
baita gabaz izarrak ñírñir  
gu ames gozoz agur tzean,  
eta kaleko giza izarrak  
inbidi biziz indartzean...

Bai,  
baita ontzak jzua sartu  
ta neskatxak arin eitean;  
gau illunari deia bota  
t'oiartzunik ez izatean.

Bai,  
bai, sari nekez lortua iduri,  
beti zaitut gogo barnean,  
uso urruma baizen eztia,  
neuri deiez, oroi ezean.

**BERE ERESKIN-EKAIAK**

**(1933'an, Iparragirre'ren omenez  
egiñiko Olerti jaira bialdua)**

Goizaro atsegintsu. Bere mende, alai,  
mendi-maldan nenbillan ardi zurik zaintzen;  
latziñak garo-pitxiz, egari jpar leuna,  
zorionak altzoan samur nindun artzen.

Laba gori bai-litzan, sutan itxasoa...  
Laster dau euzki jaunak ortz-sabaia gaindu;  
bere argi kusuak bai-dau erregarri,  
iges zoroan duaz iratxo ta kandu.

Giro ameskor artan gozaro nigarzan  
biozkada bigunak, barren-suz jaioak;  
argiz begi-niniak itsu bearrean,  
egaz yoakidazan ames-usotxoak.

Basoaren ederra nedan atsegiñez...  
Bertatik, ekantz barri, ta argi-izpi artean,  
begitarera yatan arobi liraña  
masusta gorri, ote, larren babesean.

Aizeño oiu-zaleak ereskiz etozan,  
arobiz barru norbait ba-zegon abesle;  
oin-ixil, belarriak adi, ara nintzan,  
barrendan jarriz bere zinkurin-entzule.

\* \* \*

«Gauan magala —iňoan— egunan sort-oe;  
agur, Izar, neure lo-zaindar; bigunak,  
agur, illargi eder, gautarren soroski;  
betor argia naro, ma begist egunak.